

Mesturaren egitea

E.: eta mextura, nola egiten zen xuxen, eta norik egiten zuen etxean? Amak? Amak egiten zuen?

L.: ba hua, hua re ogia iten zen mementoan. Oai ogia, bazunan espreseko aska aundi bat, aska, geo hua, bazinan, zerratzen zunan ba, estalgia bazinan hak, aska aundi bat, kopaekilan ola untzia, ola untzia, dena zura, ta ordian, ogia estekatzen zunan kanton batian, ta mestura bestian, baitzen haundia baitzen, behar zinan ukan zea hak, aska hak, zernai izanik, aantzu bi metra, metra at et erdi beden ba, ta ordian hartan, hua han iten zunan dena, pasta guzia, ta han egoiten bulta at harrotuxe artio, ta hartaik emaiten geo ogiain heiña, oai, pezaka moztuz, eta hua beexten zinan, ta oihal batian iriniaekilan zartzen zinan prest, ta man bospasei ogi giela, ta mestura re halatsu. Ez, mestura zartzen zunan zerko atzu bazitunan ferlanka, oai, burdina erran daiken, burdina bezala, burdinazkoak, ez zain erra, ta hua ingurian atxiitzeko, ta hain barnian iten zunan eta mestura hua erratzen, ba mestura, zernai izanik, lau eritres gora, edo ba, berdin, berdin, sei eritres gora xerra ederra eiten baitzen, ta ua zernai izanik, hartan erretzen zunan, pian ostoak zartzen, gazteña ostoak, al bezain aundiak arrapatu, ta hek trenpatu ta hek pian, hola, denak goiti, hala, hain zola hua zunan, ta hala erratzen, geo iten zunan mestura ttipia, oai hola, manddoak, ua fite jateko, beala jateko, alo, oai opila bezala, ogi opila bezala, zombait ogi... Ogi opilak iten zitinan amak, ez baitzen beti, eta ba, guk galditen baiginin, xokoleta barnian, opil ttipiño at olaxe, ta are, haurren gustia zeit izaiteko, ba, ba.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala